

ESKU-HUSKA. Mujikak errebantxa nahi du iaz puntu batez galdu baitzuen final laurdenetan

Martiarena: «Oraindik goizegi da errateko Iparraldeko Retegi naizela»

37 urterekin, iaz eskuratutako txapela defendituko du milafrangarrak Hazparden, igandean



BOB EDME

Manu Martiarena txapelduna, iazko finalean.

Hur Gorostiaga | **BAIONA**

Elite mailako Berezkoak finalerdietara helduak dira jadanik. Igandean Manu Martiarena eta Filipe Mujika bekoz beko arituko dira Hazparneko Berria trinketeen. Bigarren finalerdia, aldiz, ondoko igandean jokatu dute Patrick Ezkurra eta Rene Muskarditzek.

Manu Martiarena milafrangarrak iaz eskuratu txapela izanen du defendatzeko. 37 urterekin, buruz buruko 10 final jokatu eta sei txapel jantzi ditu. Dударik gabe, zazpigarrena janzteko gogoz ari da.

Adina eta emaitzengatik Iparraldeko Retegi ote den galdeginez gero, «hori errateko oraino goizegi» dela ihardetsi digu, horretarako «lehenik igandean finalerdia irabazi eta gero beste bost bat urtez jokatu behar» lukeela uste baitu. «Ipar edo He-

goaldean Retegi bakarra dago» azpimarratu du.

Hala ere, igandeko finalerdia «partida gogorra» izanen dela dio buruz buruko maisuak. «Iaz kintze batez irabazi nuen Mujikaren kontra final-laurdenetan. Sakez ongi ari da eta hor egiten ahal daut min gehien» adierazi du, eta bera ere «ongi» aurkitzen dela ere erran digu. «Zainak etxean uzten baditugu espero dut ez sobera arazorik izatea» ohartarazi du.

Mujikak lehen finala helburu

Filipe Mujika lekondarrak, aldiz, lehen finala dastatzeko parada baliatu nahi du. «Jadanik biziki kontent naiz finalerdietara arribatu naizelako» aitortu du. Izan ere azken hilabeteetan eskuko minez ibili da eta partidetan babes handiak ezarri behar ukan ditu.

«Martiarenaren kontra parti-

da zaila izanen da, ez da dudarik» erran digu, eta iaz haren kontra galdu ondoren «errebantxa gogoa» duela erran du. «Martiarena jokalaria ederra da eta trinketa biziki ontsa ezagutzen du, partikulazki buruz burukoa» argudiatu du 28 urteko pilotariak.

Finalera nola heldu jakiteko, Mujikak adibide on bat izan du etxe ondoan, Jean Yves Salaberri Xala auzoa baitu. Ez zuen Atano III.era finalaren ikustera joateko paradarik izan, baina bere aita Xalaren aitarekin batera izan zela aipatu digu. «Tamalez eskuko minez galdu zuen» ohartarazi du. Araiz Mujikari ez zaio gauza bera gertatuko finalerat heltzen bada.

Bigarren finalerdian Muskarditz

Bigarren finalerdia, buruz, aldiz, ondoko iganderako bi lapurtarrek ez dute dudarik:

ERRANAK

MANU MARTIARENA (Berezkoen txapelduna)

«Muskarditzek airez aire irabaziko du Ezkurraren kontrako bere finalerdia»

«Filipe Mujikak sakearekin sortzen ahal dit problema gehien»

FILIFE MUJIKA (Berezkoa)

«Finalerat heltzea dut helburu, ez bainaiz sekula arribatu lehenago»

«Martiarena jokalaria ederra da eta trinketa biziki ongi ezagutzen du, buruz buru bereziki»

«Muskarditzek airez aire irabazi behar luke» adierazi du Martiarenak. Hala ere, final-laurdenetan Patrick Ezkurra Jean Claude Biscoubey faboritua kanpo eman ondoren «bigarren aldiz ezustekoa eman» dezakeela uste du Mujikak, nahiz eta Azkainen «normalki Muskarditzek irabazi» behar lukeela adierazi.

Hazparden jende multzo ederra bildu behar litzateke lehen finalerdia. Berria trinketa zalua da biziki, eta bi jokalariek berendako egoki dakusate. 37 urteko esperientzia 28 urteko gaztetasunaren kontra.

TXOKOAN

ESKU-HUSKA

Titin-Mikel Goñi lehia gaur gauean Lodosan

Joan zen ostiralean ere elkarren kontra aritu ziren Titin eta Mikel Goñi. Santo Domingo de la Calzadan jokatu zuten orduan, eta errioxarra nagusitu zen Bernarekin (22-16). Gaur ere elkarrekin ariko dira orduko irabazleak Lodosan, baina Oscar Lasarekin ariko da Goñi, Fernando Goñirekin beharrean. Asteartean partidu ikusgarria jokatu zuen Oronozkoak Larderon.

18 urtez azpikoek doan izango dute biharko finalerdia sarrera

Asegarce enpresatik jakinarazi dutenez, 18 urtez azpiko guztiek dohainik izango dute Beloki-Barriola finalerdia ikusteko sarrera. Atano III.a frontoiko erreboteko eserlekuetan jarriko dituzte.

ERREMONTEA

Estelar ikusgarria atzo Hernaniko Galarretan

Ezkurra eta Iriartek irabazi zuten atzo Galarretan jokatutako partidu nagusia Matxin-Altuna I.a-Lizasoren kontra (40-37). Orekatua, gogorra eta polita. Gozatu egin zuen jendeak. Gaur gauean, Azpeitian partiduak.

JAIALDIK

ATZOKO EMAITZAK GALARRETA.

Iturralde-Urko 30; Zeberio III.a-Badiola 35. Ezkurra-Iriarte 40; Matxin-Altuna I.a-Lizasoren 37. Iñigo-Aizpuru 37; Elizalde-Etxabe 40.

DEPORTIVO.

Sanchez-Ibarra 28; Ziskar II.a-Ziskar I.a 40. Insausti-Fernando 45; Iriondo-Garrido 29. Unda I.a-Garma 40; Daniel-Beldarrain 37.

GAURKO PARTIDUAK

LODOS. 22:45 (ETB1).

Titin III.a-Berna / Goñi II.a-Lasa III.a. Berraondo-Arroyo II.a / Txafee-Apeztegia.

AZPEITIA. 22:30.

Azpeitia Hiria Torneoko partiduak. Zalakain-Badiola / Matxin III.a-Etxebe III.a. Martinez-Etxeberria III.a / Iturralde-Urko.

CLUB ATLETICO OSASUNA

El Sadar-eko denda gorritxo

Lehenengo Jaunartzea

Bizi osorako oroigarri bat.

Betiko ilusioa, OSASUNA.

Jarriozu ilusio tanta batzuk, opariozu Osasuna, opariozu oberena bere zaletasunarako denda gorritxoan.



www.navarra.com/osasuna
tosasuna@navarra.com

IREKITA: Asteartetik larunbatera, 10.00etatik 13.30ak arte eta 16.30etatik 20.30ak arte, eta igandeetan (El Sadar-eko partiduetan). ITXITA: Astelehen eta igandeetan (El Sadar-en partidurik ez dagenean).